

IRUZURRAREN AURKAKO PLANA EUROPAKO FUNTSAK KUDEATZEKO

DONOSTIAKO UDALA

AURKIBIDEA

Aurkibidea

LEHENENGO ATALA: MEMORIA.....	5
1.- SARRERA.....	5
2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOA, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK NOZIOEN GLOSARIOA.....	7
2.1.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK.....	7
2.2.- IRUZURRA.....	7
2.3.- USTELKERIA.....	8
2.4.- INTERES GATAZKAK.....	8
2.5.- IZENDAPENAK DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO.....	9
3.- ARAUDI APLIKAGARRIA.....	10
3.1.- Europar Batasuneko araudia.....	10
3.2.- Estatuko araudia.....	10
3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.....	11
BIGARREN ATALA: DONOSTIAKO UDALAREN ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA.....	12
1.- ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANAREN ELEMENTU OROKORRAK.....	12
1.1.- Planaren xedea.....	12
1.2.- Planaren izaera eta helburua.....	12
1.3.- Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Planaren printzipioak	12
1.4.- Aplikazio esparru objektiboa.....	13
1.5.- Aplikazio esparru subjektiboa.....	13
1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolamenduaren egitura.....	15
1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa.....	15

1.6.2.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Teknikoa.....	15
1.6.3.- Proiektuaren arduradunak.....	15
2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK PREBENITZEKO, HAUTEMATEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK.....	16
2.1.- PREBENTZIOZKO NEURRIAK.....	16
2.2.1.- Erakundearen Zuzentasunaren aldeko eta ustelkeriaren aurkako zero tolerantziaren aldeko konpromiso eraginkorrari buruzko Adierazpen politiko bat maila gorenean onartzea.....	16
2.2.2.- Jokabide kodeak eta kudeaketa onaren kodea onartzeko edo indartzeko estrategia bat diseinatzea.....	16
2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat.....	18
2.2.4.- Erakundeak onartutako Zuzentasun Protokoloa eta, Zuzentasun Batzordea izeneko jokabide Kodeak kudeatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko berme organo komun bat sortzea.....	18
2.2.5.- Zuzentasun eta etika publikoaren arloan estrategia eta formakuntza ekintza sorta bat diseinatzea.....	19
2.2.6.- Arriskuen ebaluazioa kudeatzeko eredu baten definizioa irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko esparruan.....	20
2.2.7.- Antolamendu Neurriak ezartzea funtsen kudeaketan.....	24
2.3.- HAUTEMATEKO NEURRIAK.....	24
2.3.1.- Dilema etikoak edo salaketak edo alerta planteatzeko barne kanalak antolatzea.....	24
2.3.1.1.- Artikulazio printzipioak.....	25
2.3.1.2.- Salaketaren edukia.....	25
2.3.1.3.- Funtzionamendua.....	26
2.3.1.4.- Salaketak egiteko Udaleko barne kanala.....	27
2.3.1.5.- Salaketak aurkezteko kanpo kanalak.....	27
2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea.....	28
2.3.3.- Jardueri eta, hala badagokio, interesei, ondasunei edo ondareei buruzko adierazpenak.....	28



2.3.4.- Datuak eta trazabilitatea kudeatzeko tresnak sartzea.....	29
2.4.- ZUZENTZEKO NEURRIAK.....	29
2.4.1.- Sarrera.....	29
2.4.2.- Jarduerak ustezko iruzur bat hautematen denean.....	30
2.4.3.- Iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak sistemikoak ala puntualak diren jakiteko ebaluazioa.....	30
2.4.4.- Proiektuak osorik edo zati batean baztertzea.....	31
2.4.6.- Beste zuzenketa neurri osagarriak hartzea:.....	31
2.5.- JAZARPEN NEURRIAK.....	32
2.5.1.- Sarrera.....	32
2.5.2.- Informazio erresebatua eta diziplina edo zehapen prozedurak abiaraztea.....	32
2.5.3.- Gertatutakoak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea.....	33
2.5.4.- Ustezko iruzur kasuak nazioko edo Europar Batasuneko agintaritza publikoen eta fiskaltzaren edo auzitegien aurrean salatzea.....	33
2.5.5.- Kasuaren gaineko jarraipena eta funtsak berreskuratzea.....	34
3. PUBLIZITATEA ETA ONDORIOAK ETA JARRAIPENA.....	34
3.1. Publizitatea.....	34
3.2. Ondorioak.....	35
3.3. Jarraipena.....	35

LEHENENGO ATALA: MEMORIA

1.- SARRERA

I.-

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT), bere 310. eta 317. artikuluetan aitortzen du finantza kudeaketa onaren printzipioa Batasunaren Aurrekontuaren erabileran. Estatu kideek, EBFTren 325. artikulua finkatzen duenez, Batasunaren aurrekontu horietatik etorritako baliabideak kudeatzen dituztenean, elkarlanean jardun eta iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatu behar dituzte, nahitaez.

EBFTan jasotako aurreikuspen horiek unean-uneko oihartzuna izan dute, eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honetan ohartaraziko denez, EBren “Zuzenbide eratorria” deitutako kategorian biltzen diren arau tresnek (Zuzentarauak, Erregelamenduak, Erabakiak) eta *soft law* deituriko tresnek (Komunikazioak, Gomendioak, etab.) garatu dituzte.

Europar Batasunak arian-arian emendatu egin ditu erakundeetako eragileek, Batasunetik etorritako aurrekontu sailen zuzeneko edo zeharkako kudeaketa edo kudeaketa partekatuan, zuzentasunaren arloan egiaztatu behar zituzten eskakizun estandarrak, lehenik Europako funtsen arloko xedapen partekatuei buruzko 1303/2013 Erregelamenduaren bidez, eta azkenik, 2018ko Finantza Erregelamenduaren bidez, iruzurraren aurkako borrokari buruzko 2017ko Zuzentzarautik igaro ondoren.

Europako Kontseiluak onartutako Next Generation UE programa jarri zen abian 2020ko uztailan, eta ondorioz, Covid-19ak eragindako krisi sanitario/humanitario, ekonomiko eta sozial hirukoitzaren ondorioak arintzeko neurri antizikliko batzuk aplikatuko ziren.

Programa horren garapenak garrantzi bereziko tresna juridiko europar batzuk onartzea ekarri zuen berekin batean, horien artean aipagarri Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) ezartzen duen Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, otsailaren 12koa. Horren arabera, finantza sustapeneko neurri horiek (finantza ekarpenak eta maileguak) baliatu nahi zituzten estatu kideek Suspertze eta Erresilientzia plan bat bete behar zuten, eta plan horretan dena delako herrialdeak suspertzeko, indartzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko egin beharreko erreformak eta inbertsio proiektuak jasoko ziren.

Europako Kontuen Auzitegiak bere garaian 6/2020 Irizpenean egindako iruzkinen ondorioz, SEM-MRR Erregelamenduak era berean aipamen ugari egin zituen Europako funts berezi horiek kudeatuko dituzten estatu kideek iruzurrari, ustelkeriari eta interes gatazkei aurre egiteko beharrezko neurriak hartu behar zituztela adierazteko. Asmoa da finantza baliabide horien erabileran halako gertaera patologikoak saihestuko edo arinduko dituen prebentzio, hautemate eta zuzenketa politika egitea. EBko Kontuen Auzitegiak ohartarazi zuenez, kontuan izanik oso epe laburrean erabili beharreko finantza baliabideen bolumena, kasu honetan oso handia zen irregularitasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko aukera, eta beraz, funts berezi horiek aldeztatik diseinatutako norakoa eta ondorio

ekonomikoak eta sozialak izateko beharrezkoak diren kudeaketa neurriak aplikatzeaz gain, alderdi horretan funtsezkoa zen Suspertze eta Erresilientzia Plan horiei lotutako programak egikarituko zituzten erakunde publiko eskudunetan zuzentasun mekanismoak finkatzea edo indartzea.

II.-

Espaniak 2021eko apirilaren 30ean aurkeztu zuen bere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (PRTR). Hartan aletzen ziren erreformak eta inbertsio proiektuak, eta SEM-MRRren Erregelamenduan finkatutako estandarren arabera, lau ardatzetan (SEM-MRRren sei zutabeekin zuzenean edo zeharka lotuta), 10 palanka politiketan eta erreforma eta finantza proiektu horiek biltzen zituzten 30 Osagai edo ekintza lerrotan egituratzen ziren. Plan horrek Europako Batzordearen oniritzia jaso zuen, eta bere garaian finantza ekarpenei lotutako aurreneko funtsak (guztizkoaren % 13) iristen hasi ziren. Geroago iritsiko ziren gainerako funtsak, PRTR planean jasotako erreformetan eta inbertsio proiektuetan finkatutako mugarrak eta helburuak bete ahala.

SEM-MRRren Erregelamenduan jasotako eskakizunaren zuzeneko emaitza zen Plan hori. Era berean, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen barne Zuzenbidean; horren bidez onartu ziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak. Plan horren edukiaren zati batek oinarritzeko izaera du, eta 3. artikulua Plan hori egikaritzeko kudeaketa printzipio batzuk aipatzen ditu, horien artean –Europar Batasuneko Zuzenbideak hala eskatzen duelako– interes gatazkak, iruzurra eta irregulartasunak behar bezala prebenitzeko mekanismoak indartzekoak.

Betebehar orokor hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduan zehazten da. Agindu horren arabera, irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismo horiek, beste askorekin batera, PRTR planetik etorritako Europako funtsak kudeatzeko sistemaren zati dira, sistemaren zeharkako irizpide edo printzipio. 6. artikulua arabera, SEM-MRRtik etorritako Europako funts bereziak erabakitzen edo erabiltzen dituzten erakunde guztiek nahitaez onartu beharko dute Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan bat.

Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan batek jaso beharreko betebehar edo eskakizun batzuk finkatzen ditu Agindu horrek. Era berean, Plan hori erakunde bakoitzaren ezaugarri espezifikoei moldatu behar dela adierazten du, eta beraz, dagokion eskumen eta jardura esparru propioa, eta hain zuzen ere horixe bera da Plan honetan egin dena.

Neurri horiek iruzurraren aurkako zikloaren inguruan aplikatu behar diren arren, Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plana onartu behar duen erakundeak neurri batzuk edo beste batzuk sustatzeko konfigurazio tarte zabala du egoeraren edo, zuzentasun mekanismoei dagokienez, burura eramandako diagnostikoaren arabera.

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOA, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK NOZIOEN GLOSARIOA

2.1.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK

Europar Erkideetako interesak babesteari buruzko 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 zenbakiko (EB, EURATOM) Erregelamenduaren 1.2 artikulua ematen du irregulartasun administratiboaren definizioa: *“Irregulartasuna izango da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez egite bati dagokion Erkidegoko Zuzenbidearen xedapen baten arau hauste oro, baldin eta arau hauste horrek Erkidegoen (Europar Batasuna) aurrekontu orokorrari edo erkidegoek administratutako aurrekontuei (edo nazioko agintaritzek edo tokiko agintaritzek modu partekatuan kudeatutako aurrekontuei) kalte egiten badie, dela Erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru sarrerak murriztuz edo ezabatuz, dela bidegabeko gastu baten bidez”*.

2.2.- IRUZURRA

Iruzurraren definizioa Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentarauan, Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoan, dago jasota: *“1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurra arau hauste penala izan dadin bermatzeko, iruzur hori nahita egin bada.*

2. Zuzentzarau honen ondorioei begira, Batasunaren finantza interesei eragiten dien iruzurtzat joko da ondorengo:

a) Kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, honako hauei buruzko egite edo ez egite:

i) adierazpen edo agiri faltsu, zehaztugabe edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean administratutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea bada,

ii) informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo

iii) funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea;

b) Kontratu publikoekin zerikusia duten gastuen arloan, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi asmoz egiten direnean bederen, eta Batasunaren finantza interesei galera eragiten dienean, honako hauei buruzko edozein egite edo ez egite:

i) adierazpen edo agiri faltsu, zehaztugabe edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak administratutako aurrekontuetako edo haren izenean administratutako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea bada,

ii) *informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo*

iii) *funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea eta Batasunaren finantza interesei kaltetzea;*

(Nolanahi ere, iruzurraren nozioaren irismen zehatza finkatzeko, kontuan hartu behar da 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua eduki osoa, hona zati bat baizik ez baita ekarri)”.

2.3.- USTELKERIA

Ustelkeriaren kontzeptu hau aplikatzen du Europako Batzordeak: *“Ustelkeria da postu publiko baten botere gehiegikeria onura pribatuak lortzeko. Ordainketa ustelek beste iruzur mota asko ahalbidetzen dituzte, hala nola fakturazio faltsuak, izan ez diren gastuak eta kontratuaren arabeko betebeharrak ez betetzeak. Ohikoenak ordainketa ustelak edo antzeko onurak dira: hartzaile batek (ustelkeria pasiboa) emaile baten (ustelkeria aktiboa) eroskeria onartzen du mesede baten truke”* (Iturria: Europako Egiturazko Funtsetarako eta Inbertsioetarako Europako Batzordea. Jarraibideak Estatu kideentzat eta programen agintaritzaren arduradunentzat. Iruzur arriskuaren ebaluazioa eta iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionalak, 2014).

2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 4.2 artikulua ematen du **Ustelkeria aktiboa eta ustelkeria pasiboa** kontzeptuen definizioa:

“2. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte ustelkeria pasiboa eta aktiboa, nahita egiten direnean, arau hauste penalak izan daitezen bermatzeko.

a) Zuzentaru honen ondorioei begira, ustelkeria pasiboa da, zuzenean edo bitartekari baten bidez, beretzat edo hirugarrenentzat, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen edo abantaila baten promesa onartzen duen, edo bere betebeharrak edo bere eginkizunak betetzen ez dituen eta Batasunaren finantza interesak kaltetzen dituen edo kaltetu ditzakeen funtzionarioaren ekintza.

b) Zuzentaru honen ondorioei begira, ustelkeria aktiboa da, zuzenean edo bitartekari baten bidez, funtzionario bati edo hirugarren bati, edozein motatako abantailak agintzen, eskaintzen edo ematen duen pertsona ororen ekintza, funtzionario horrek edo hirugarren pertsona batek jardun dezan edo bere betebeharren edo bere eginkizunen arabera jardun ez dezan Batasunaren finantza interesei kalte egiteko moduan”.

2.4.- INTERES GATAZKAK

2018ko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikulua gisa honetan zehazten du zein kasutan gertatuko diren interes gatazkak: *“1. atalaren ondorioei begira, interes gatazka gertatuko da 1. atalean adierazitako finantza eragileen eta gainerako pertsonen (arduradun politikoak eta Europako funtsak kudeatuko dituzten enplegatu publikoak) eginkizunen lan inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko eta nazionalengatik, interes*

ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik”.

Nolanahi ere, interes gatazken nozioaren irismena zehazteko, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera kontuan hartu behar dira Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluko osoa eta *Interes gatazka egoerak Finantza Erregelamenduaren arabera saihesteko eta kudeatzeko jarraibideei* buruzko apirilaren 4ko 2021/C 121/01 Komunikazioa.

Era berean, HFP 1030/2021 Aginduaren III C Eranskinean daude jasota benetako, balizko edo itxurazko interes gatazken definizioak.

2.5.- IZENDAPENAK DOKUMENTU HONEN ONDORIOETARAKO

Dokumentu honen ondorioetarako, iruzurra aipatzen denean, 2.2 puntuan definitzen den moduan ulertu beharko da, baina baita 2.1 puntuan aipatzen diren irregularitate modura, 2.4 puntuan aipatzen den ustelkeria modura eta puntu bereko interes gatazka modura. Iruzur hutsa soilik aipatu denean, hau da, 2.4 puntuan jasotzen den moduan ulertzea nahi bada soilik, “berezko iruzurra” modura izendatuko da.

3.- ARAUDI APLIKAGARRIA

3.1.- Europar Batasuneko araudia

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren finantza interesei kaltetzen dien iruzurraren aurka zuzenbide penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko araei buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ok 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Batasunaren Zuzenbidearen arau hausteen berri ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

3.2.- Estatuko araudia

Abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzura ari diren Langileen bateraezintasunei buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/185 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra, dirulaguntzei buruzkoa.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa.

Martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi kargudunen eginkizunak arautzen dituena.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onartzen duena.

Apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua, Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko kontratuei buruzkoa.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, gaikuntza nazionala duten Tokiko Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituena.

Irailaren 29ko HFP 1030/2021 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duena.

3.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko araudia

Ekainaren 26ko 1/2014 Legea, kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituena.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa.

BIGARREN ATALA: DONOSTIAKO UDALAREN ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

1.- ZUZENTASUN ETA IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANAREN ELEMENTU OROKORRAK

1.1.- Planaren xedea

1.- Donostiako Udalaren Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Europar Batasunaren Zuzenbidean, 36/2020 Errege Lege Dekretuan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera onartu da.

2.- Iruzurraren aurkako zikloaren lau faseen inguruan egituratzen da Plan hau Europako funtsak kudeatzean eta erabiltzean irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko xedearekin eta finantza kudeaketa onaren printzipioa, Europar Batasunaren finantza interesak babesteko printzipioa eta kudeaketarekiko emaitzen konpromisoaren printzipioa zaintzeko helburu nagusiarekin.

3.- Halaber, sei Eranskinekin osatzen da Plana

1.2.- Planaren izaera eta helburua

1.- Erakundearen zuzentasuna indartzeko eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko estrategiaren elementu nagusi gisa dago konfiguratuta Plana, zuzentasunaren arloko plangintza estrategikoa itxuratzeko tresna da, dokumentu bizia eta irekia; izan ere, berehalako helburu batzuk markatzen ditu eta aldizka berrikusteko deia egiten du erakundearen estandar etikoak etengabe hobetzeko, batez ere Europako funtsen kudeaketari eta erabilerari dagokienez, finantza baliabide horien erabiltzailea edo onuraduna Udal hau baldin bada.

1.3.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren printzipioak

Europako funtsen kudeaketari dagokionez, honako printzipio hauetan oinarritzen da Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plan hau:

a) Zuzentasuna

Inpartzialtasuna eta objektibotasuna

Gardentasuna

Finantza kudeaketa ona

Europar Batasunaren finantza interesen babesa

Emaitzarekiko konpromisoa

Kontuak ematea

1.4.- Aplikazio esparru objektiboa

Udal honetan, Europako Batzordeak HFP/1030/2021 Aginduan ezarritako kudeaketa sistemaren esparruan 2021eko ekainean onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Osagaietatik etorri eta Udal honek kudeatzen dituen edo onuradun den Europako funtsei eta kudeatzen dituen Europako gainerako funtsei aplikatuko zaie Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan hau.

- a) Gainera, betiere dagokion araudi espezifikoarekin bat etorrita, Udalak kudeatzen dituen edo onuraduna den finantza baliabideei, hala badagokio, baliabide horiek Europako funtsetatik eta 2021-2027 Urte Askotako Finantza Esparruko inbertsioetik etorriak badira.
- a) Eta, hala badagokio, Udalak kudeatu ditzakeen edo onuradun izan daitekeen Europako funtsei, Suspertze eta Erresilientzia planetik edo planetatik etorriak badira eta, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2023ko abuztuak 31 baino lehen eskatzen badira.

1.5.- Aplikazio esparru subjektiboa

a) Plana aplikatzeko esparru organiko subjektiboa

Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan hau Udal administrazioari eta atal honetan identifikatzen diren Udalaren sektore publikoko erakundeei aplikatuko zaie; bertan jasotako neurriak, hala badagokio, egokitu edo bereizi ahal izango ditu dagokion entitateak edo funtsak kudeatzeko jarduerak hala eskatzen dutenean. Udal entitateak plan honi lotuta geratuko dira plana bera Tokiko Gobernu Batzordean onartzen den unetik gutxienez honako puntu hauetan:

- Iruzuraren aurkako planaren elementu orokor eta printzipioak
- Europar funtsen gestioan zuzentasun protokoloaren edukia, eta behin onartuz gero, dagokien portaera kodeak
- Planaren antolaketa egitura
- Planaren trebakuntza ekintzak
- Arriskuen ebaluazio orokorraren, eta kontratazio zein diru-laguntzen arrisku ebaluazio espezifikoen metodologia
- Dilema etikoak, salaketak edo alertak aurkezteko barne kanalera atxikitzea, eta berau erabiltzea
- Zuzentze eta jazarpen neurriak

Bereziki, sektore publikoko zuzendaritzek, sailek edo erakundeek arriskuen ebaluazioa egokitu ahal izango dute euren esparruei eta egoerei dagokienez, kasu bakoitzean dagokien egikaritze materialaren eremuaren arabera.

Plan honen ondorioetarako, sektore publiko instituzionalak honako erakundeak biltzen ditu Donostiako Udalez gain:

- DonostiaTik, erakunde autonomoa
- Musika eta Dantza Eskola, erakunde autonomoa
- Kiroletako Udal Patronatua, erakunde autonomoa
- Vivienda - Etxegintza, enpresa erakunde publikoa
- Donostia Kultura, enpresa erakunde publikoa, eta bere bi sozietate instrumentalak, San Telmo Museoa SA eta Victoria Eugenia Antzokia SA
- Donostiako Sustapena, sozietate publikoa
- San Sebastián Turismoa Donostia, sozietate publikoa
- CTSS, sozietate publikoa
- Donostia Hileta Zerbitzuak (Polloe), sozietate publikoa
- Bainuetxearen baltzua, sozietate publikoa
- Eguskiza, sozietate publikoa
- Anoeta Kiroldetgia-Ciudad deportiva de Anoeta, sozietate publikoa
- Cristina Enea, fundazioa

b) Planaren aplikazioa zabaltzen zaien eragileen esparrua

Zuzentasuna indartzeko neurriak eta irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak Europako funtsen kudeaketarekin, erabilerarekin edo norakoekin zerikusia duten udal esparruko eragile hauei aplikatuko zaizkie:

Udal arduradun publikoei, nola ordezkari politikoei hala kargu betearazleak dituztenei eta, hala badagokio, erabakietan edo jarduera publikoetan parte hartu edo eragin dezaketen behin-behineko langileei.

Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten udal enplegatu publikoei, baita kanpora atera eta eginkizun horietakoren bat edo batzuk eskuordetu edo agindu dioten beste edozein eragileri ere.

Funtsekin finantzatutako jardueren onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei, beren interes alde baina Batasunaren finantza interesen aurka egin badezakete, interes gatazka baten testuinguruan.

Kontratazio publikoko prozesuetan edo dirulaguntza edo laguntza prozesuetan aurretiazko lanetan edo prestakuntzan, edo azterlanen eta irizpenen prestakuntzan parte hartzen duten kanpoko aholkulariei, profesionalei edo lan taldeei edo batzordeei, interes gatazkak gerta badaitezke.

1.6.- Plana kudeatzeko eta garatzeko antolamenduaren egitura

1.6.1.- Planaren Zuzendaritza Politikoa

Alkatetzak bideratuko du Planaren Zuzendaritza politikoa.

1.6.2.- Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Teknikoa

Zuzentasun eta Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Kudeatzeko Arduradun Tekniko batek (aurrerantzean Arduradun Tekniko deituko zaio dokumentu honetan) bideratuko ditu Iruzurraren aurkako neurrien Planaren kudeaketaren plangintza, zuzendaritza, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko eginkizun teknikoak.

Arduradun teknikoak, gehiegi sakondu gabe, gutxienez honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Planean jasotako zuzentasun neurriei dagokienez, egin beharreko egokitzapenak sustatuko ditu.
- Arriskuen eta dagozkien egokitzapenen aldizkako ebaluazioa egingo du.
- Planaren aplikazioari eta garapenari dagokienez, arloei, zuzendaritzei eta erakundearen sektore publikoari aholkatuko die.
- Jarraibideei buruzko eskuliburuak, lizitazio orrien ereduak, dirulaguntzen deialdietako oinarriak, hitzarmenak edo Europako funtsen kudeaketa hobetzeko beste edozein tresna landuko edo sustatuko ditu.
- Funtsen kudeaketaren arloan antolatzeke eta giza baliabideak erabiltzeko proposamenak egingo ditu.
- Oro har, plana kudeatuko eta dinamizatuko du.

Arduradun Teknikoaren eginkizunek ez dituzte oztopatuko Erakundearen Zuzentasun Batzordeari (aurrerantzean Zuzentasun Batzorde deituko zaio dokumentu honetan), hala badagokio, esleitutako eginkizunak.

1.6.3.- Proiektuaren arduradunak

Udalak edo beronen erakunde publikoek, Europako funtsen erabiltzaile edo onuradun diren aldetik, PRTR planaren Osagaien proiektuen, azpiproiektuen edo ekintza ildoen esparruan bideratzen dituzten jarduerak gaiaren arabera esleituko zaizkio arlo, zuzendaritza edo erakunde bakoitzari, eta zeharkako egiturak edo batzordeak eratu ahal izango dira ekintza jakin batzuk egikaritzeko.

Proiektuaren arduradun bat egongo da proiektu edo programa bakoitzaren buru, betiere Koordinazio Orokorraren ikuskaritzapean eta haren jarraibideei, edo, hala badagokio, dagokion organuak eta Arduradun Teknikoak hartutako erabakiei eta bideratutako ekimenei jarraiki.

Proiektuaren arduradunak, Arduradun Teknikoarekin koordinatuta, zuzentasun arduradun bat izendatu ahal izango du dagokion esparruaren kudeaketa arloan, Zuzendaritza Batzordearekin izango ditu harremanak, eta zuzentasun politika sustatzeko ekintzak bultzatuko ditu. Eginkizun horiekin arduratuko den pertsonarik ez bada, proiektuaren arduradunak bere gain hartuko ditu horiek.

2.- IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRUZURRA, USTELKERIA ETA INTERES GATAZKAK PREBENTZEKO, HAUTEMATEKO, ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO NEURRIAK

2.1.- PREBENTZIOZKO NEURRIAK

Xedea

Prebentziozko neurrien helburua da erakundearen azpiegitura etikoa eta Europako funtsak kudeatzeko sistema bera indartzeko ekintza, tresna eta bitarteko sorta bat zuzentasunaren ikuspegitik antolatzea. Horretarako, Europako funts horien kudeaketan irregulartasun, iruzur, ustelkeria eta interes gatazka arriskuak arintzeko edo, hala badagokio, saihesteko ikuspegi proaktiboa hartzen du.

Neurriak

Hauexek dira Plan honen bitartez hartu nahi diren eta ondoren erakundeak egikaritu eta garatuko dituen prebentziozko neurriak:

2.2.1.- Erakundearen Zuzentasunaren aldeko eta ustelkeriaren aurkako zero tolerantziaren aldeko konpromiso eraginkorrari buruzko Adierazpen politiko bat maila gorenean onartzea.

Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak Adierazpen politikoa onartu du Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honekin batera.

2.2.2.- Jokabide kodeak eta kudeaketa onaren kodea onartzeko edo indartzeko estrategia bat diseinatzea.

Donostiako Udalari etika eta jokabide printzipioen arloan aplikatu beharreko arau esparrua Plan honekin batera doa.

Udaleko eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundearen azpiegitura etikoa indartzeko helburu bakarrarekin, Plan honek esparru kontzeptual bat eratzen du, tresna sorta bat eta denboran kokatutako plangintza bat, Europako funtsen kudeaketari dagokionez batez ere Batasunaren finantza interesak zaintzeko jokabide eta

kudeaketa onaren kodeak onartzeko estrategia finkatzeko. Azken alderdi hori, aurrerago azalduko den bezala, Europako funtsen kudeaketaren arloko Zuzentasun Protokolo espezifiko batean dago jasota, eta protokolo horren xedea da erakundeak jada onartu duen edo onartzeko duen jokabide kodea edo kodeak osatzea edo ordezkatzeta.

Helburu estrategikoa

Esparru edo zuzentasun sistema ahalik eta holistiko baten eraikuntzan inbertitzea eskatzen du erakundeetan irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismoak oro har indartzea edo finkatzea dakarren zuzentasun sistema holistikoak. Horretarako, autoerregulaziorako tresna hauek lantzea edo egokitzea sustatuko du erakundeak:

- Zuzentasun kodearen modalitatea:
 - Etika eta jokabide kodea, kudeaketa onaren kodea eta erakundearen zuzentasunaren kodea (jarraian adierazten diren kodeak bilduko lituzke).
- Egitura segmentuen edo jarduera esparruen kodeen modalitatea:
 - Goi kargudunen, zuzendarien eta behin-behineko langileen etika eta jokabide kodea, eta kudeaketa onarena.
 - Enplegatu publikoen etika eta jokabide kodea, eta kudeaketa onarena.
 - Kontratazio publikoari aplikatu beharreko etika eta jokabide kodea (edo Zuzentasun Protokoloa).
 - Dirulaguntzei aplikatu beharreko etika eta jokabide kodea (edo Zuzentasun Protokoloa).

Helburu estrategikoak betetzeko kronograma

KODE MOTA	JARDUERA MOTA	ONARTZEKO EPEA
Erakundearen zuzentasun kodea	Onartzea	2022ko abendua
Kargu publikodunen kodea	Egungo kodea egokitzea	2022ko ekaina
Enplegatu publikoen kodea	Onartzea (EPOETBren osagarri)	2023ko martxoa
Kontratazio Publikoaren kodea edo Zuzentasun Protokoloa	Onartzea	2022ko abendua
Dirulaguntzen kodea edo Zuzentasun Protokoloa	Onartzea	2023ko ekaina

2.- Berehalako helburua:

Irregularitasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismoak indartzeko berehalako helburu horren xede bakarra da erakundeak Europako funtsak behar bezala kudeatzea eta, beraz, balio eta printzipio sorta bat eta udal erakundeak Europako funts horien kudeaketan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten eragile guztiek Europar Batasunaren finantza interesak zaintzeko bete beharreko jokabide eta jarduera arau batzuk ezartzea.

Berehalako helburu hori Europako funtsen kudeaketarako Zuzentasun Protokolo batean zehazten da, II. Eranskinean dago jasota, eta plan honekin batera onartzen da. Hurrengo puntuan aztertzen da.

2.2.3.- Plan honekin batera, berehala onartzea Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat.

Plan honen barruan Europako funtsak kudeatzeko Zuzentasun Protokolo bat onartzea aurreikusten da. Plan hori gaur egun Udalean aplikagarria den kode etikoari batuko zaio eranskin gisa, eta bertan ezarritako eragileei hedatuko die aplikazioa, horretarako berehala indartuko direla funts horien kudeaketari aplikatu beharreko zuzentasun mekanismoak; nolana ere, behin betiko kodea edo kodeak onartzen direnean, hala badagokio, eta ezartzen diren baldintzetan eranskin gisa jasotzen direnean, edukia berrikusi ahal izango da.

II. Eranskinak jasotzen du Zuzentasun Protokolo hori, hasiera batean Balioak eta Printzipioak biltzen dituena, eta irismenari dagokionez xehetasunez definitzen dituena. Era berean, Europako funtsen kudeaketari dagokionez, Protokoloa kudeatzeko berme organo bat aurreikusten du.

Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honen I. Eranskinean jasotako Europako Funtsak Kudeatzeko Zuzentasun Protokoloa berrikusi egingo da onartzen denetik sei hilabeteko epean, Europako funtsen kudeaketan egindako aurreneko urratsen ondorioz egin beharreko aldaketak jasotzeko eta autoerregulaziorako tresna horretan ezarritako balioei eta printzipioei lotutako jokabide eta jarduera arauak zehazteko.

2.2.4.- Erakundeak onartutako Zuzentasun Protokoloa eta, Zuzentasun Batzordea izeneko jokabide Kodeak kudeatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko berme organo komun bat sortzea

Ezaugarri horien dituen organorik ez dagoenez, Plan honen bidez erabaki da Zuzentasun Batzordea izeneko berme organo komun bat sortzea, funtzionatzeko autonomiaz hornitua, inpartzialtasun eta objektibotasun irizpideen arabera jardungo duena, zuzentasun sistema betearaziko duena eta Protokoloa eta, hala badagokio, dauden kodeak edo onartzen direnak Erakundearen gutxieneko Zuzentasun Esparru batez hornituko dituena, balioei, printzipioei, jokabide arauari eta jarduteko arauari

eraginkortasuna emateko nola kudeaketari hala emaitzei dagokienez. Organo honen osaera eta funtzioak Zuzentasun Protokoloaren 14 eta 15 puntuetan jasotakoa izango da.

2.2.5.- Zuzentasun eta etika publikoaren arloan estrategia eta formakuntza ekintza sorta bat diseinatzea

Formakuntza Estrategiaren helburua Zuzentasun eta Etika Publikoaren arloan

Zuzentasun eta etika publikoaren esparruko formakuntza Estrategiaren helburua da, alde batetik, erakundeak azpiegitura etiko bat garatzea, eta bestetik, prebentzioaren esparruan zuzentasunaren kultura indartzea, eta hein handi batean oinarritzen da erakundea bere autoerregulaziorako tresnen bidez hornitu den balio, printzipio, eta jokabide eta jardura arauekin bat datozen portaera eta ohituretan eta indarrean dagoen esparru juridikoarekiko eta herritarren eskubideekiko erabateko errespetuan.

Honenbestez, etika eta zuzenbide arloko formakuntzak zentzu berezia hartzen du erakundeak modu partekatuan kudeatzen dituenean Europako Batzordeak sustatutako programetatik etorritako funts publikoak, kasu horietan, barne arau esparruaren berezko betebeharrak ez ezik, finantza kudeaketa egokiaren eta Batasunaren finantza interesen babesaren printzipioek ere esku hartzen baitute. Ondorioz, kasu horietan, Europako esparru juridikoak (besteak beste, 2018ko Finantza Erregelamenduak eta SEM-MRRren Erregelamenduak) betebeharren plus bat ezartzen du, eta beraz, barne araudiak (36/2020 EDLk eta HFP 1030/2021 Aginduak) Europako funtsak kudeatzeko kudeaketa sistema bat ezarri du, eta horren zatia da, zeharkako printzipio gisa, finantza baliabide horien kudeaketan zuzentasun mekanismoak indartzea. Horregatik da garrantzitsua etikari buruzko berariazko prestakuntza programa egokitzea, bai eta zuzentasunaren arloko eskumenak eta tresnak garatzea ere (irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzea, hautematea eta zuzentzea), bereziki Europako funtsen kudeaketari eragiten dion guztian.

Zuzentasun mekanismoak indartzeko formakuntza ekintzen tipologia

Azaldutako helburuei dagokienez, funtsean hauxe da erakundeak zuzentasun mekanismoak indartzeko sustatu beharreko formakuntza ekintzen tipologia:

- a) Zuzentasun eta Iruzuraren aurkako Neurrien Planaren edukiarekin duen loturagatik:

Zuzentasun Plana politikariei, enplegatu publikoei eta haren edukiaren egikaritzean interesatuta dauden eragileei (kontratastak, dirulaguntzen hartzaileak izan daitezkeen erakundeak, adituak, etab.) aurkezteko saioa.

Zuzentasun Planaren edukiari buruzko bideoen eta/edo material teknologikoen zabalkundea.

Zuzentasun Plana Web orrian eta Gardentasun Atarian txertatzea.

Xedearekin eta helburuarekin duen loturagatik:

Zuzentasun eta etika gaien sentsibilizatzeko saioak, Europako funtsen kudeaketari aplikaturik.

Etika eta zuzentasunari buruzko formakuntza ikastaroak.

Zuzentasunari buruzko formakuntza ikastaroak Europako funtsak kudeatzeko sistemaren testuinguruan.

Kudeaketa publikoan gerta daitezkeen dilema etikoei eta interes gatazkei buruzko tailerrak.

Norberak ikasteko programa birtualak eta pilula etikoak.

Publiko hartzailearekin duen loturagatik:

Goi kargudunak eta zuzendariak, baita behin-behineko langileak ere.

Europako funtsak kudeatu ditzaketen edo zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzten funtzionarioak eta gainerako enplegatu publikoak.

Oro har enplegatu publikoak.

Kontratastak eta emakidadunak eta dirulaguntzen edo laguntzen hartzaileak.

Dagokion esparruarekin duen loturagatik:

Erakundearen osotasunean kultura etikoa eta zuzentasun kultura indartzeko formakuntza programak eta ekintzak.

Europako funtsen zuzeneko edo zeharkako kudeaketan parte hartzen duten edo parte hartuko duten langileei eta arduradunei soilik kultura etikoa eta zuzentasun kultura indartzeko formakuntza programak eta ekintzak, irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko, finantza kudeaketa onaren printzipioak zaintzeko, Europar Batasunaren finantza interesak babesteko eta emaitzarekiko konpromisoa bermatzeko xedearekin.

2.2.6.- Arriskuen ebaluazioa kudeatzeko eredu baten definizioa irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko esparruan

2018ko Finantza Erregelamenduaren 63. artikulua, eta lehenik EIE funtsen xedapen komunei buruzko 1303/2013 Erregelamendua, eta HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua eskatzen dute Europar Batasunetik etorritako funtsak erabiltzen dituzten nazioko agintariek arriskuak ebaluatzeko prozesuak egiteko, irregulartasun administratiboak, iruzurrak, ustelkeriak eta interes gatazkak ahalik eta gutxienera eramateko xedearekin.

Metodologia eta antolakuntza arriskuen ebaluazioaren arloan. Arriskuen eta zuzentasun neurrien jarraipenerako proiektu edo jardueraren arduraduna.

Plan honetan alderdi kontzeptualei heltzen zaie, eta ebaluazio prozesuetan aplikatu ahal izango diren alderdi metodologikoak zehazten dira, betiere kontuan izanik prozesu irekiak edo biziak direla eta, hala badagokio, Udalak edo beronen sektore publikoko erakundeek erakunde betearazle gisa edo Europako funtsen hartzaile edo onuradun gisa funts horiek hartzen dituztenean zehaztuko direla prozesu horiek sektore esparru jakin batzuetan.

Beraz, udal proiektu edo jardura bakoitzean Arduradun Teknikoak edo proiektuaren arduradun izendatutako pertsonak identifikatuko ditu arriskuen matrizean egin beharreko egokitzapenak. Azken kasu honetan Plan honetan adierazitako Arduradun Teknikoaren ereduarekiko oniritzia jaso beharko du homogeneotasun ondorioei begira. eta Europako funtsekin finantzatzen den proiektuaren edo jardueraren kudeaketan esku hartzen duten eragileen artean zuzentasun estandarrak hobetzeko ekimenak sustatuko ditu. Halaber, eta modu berean jokatuz, funts europarrekin finantzatzen den proiektu edo jardueran dihardutenen zuzentasun estandarrak hobetzeko ekimenak bultzatuko ditu.

Proiektuaren arduradunak, hurrenez hurren Arduradun Teknikoari edo Zuzentasun Batzordeari bideratuko dizkie proposamenak, arriskuen ebaluaziorako prozesuen edo dilema etikoak edo salaketa prozesuen arabera eta organo bakoitzaren eginkizunen arabera.

Arriskuen kudeaketa, prozesu gisa, era berean zuzentasunaren esparruan, hiru faseren bitartez bideratzen da:

1. Zuzentasunaren arloan arriskuak geratzeko aukera handienak dauzkaten erakundeetan jardura arloak identifikatzea.

Arrisku mapak eta arrisku matrize bat lantzea, arrisku bakoitzak erakundearen prozesuetan eta jardueretan duen eragina zehaztuz eta arrisku oso handia, handia eta txikia dakartenak definituz.

Bereziki arrisku oso handia edo handia duten kasuetan abian jarri beharreko neurri zuzentzaileak aplikatzea.

ARRISKUEN EBALUAZIOAREN HELBURUAK ZUZENTASUNAREN ARLOAN

- a) Barne ezaugarriengatik edo kanpo eraginengatik irregulartasun, iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko arrisku handiena duten arloak, prozesuak eta jarduerak hautematea.

Sentsibilizazioa ahalbidetzea erakundearen erabakiak hartzeko edo kudeatzeko prozeduretan esku hartzen duten eragileen iruzurra eta beste jokabide irregularrak prebenitzeko esparruan.

Lanbide jokabideak eta portaerak garatzea indarrean dagoen arau esparruari eta autorregulaziorako tresnetan ezarritako balioei eta printzipioei egokitu, Suspertze Planarekin edo Europako beste funts batzuen kudeaketarekin lotutako proiektuen, azpiproiektuen edo jardueren kudeaketan Europar

Batasunaren finantza interesak babesteko eta finantza kudeaketa onaren printzipioak eraginkorrak izateko.

Jarduera edo prozesu jakin batzuek erakundearen helburuei eta xedeei zein neurritan eragin diezaieketen zehaztea.

ARRISKUAK IDENTIFIKATZEA ETA ANTOLAMENDUAREN TESTUINGURUA

Erakundearen diagnostikotik eta haren testuingurutik eratortzen diren koordinatuetatik abiatuta identifikatu behar dira bai arrisku eremuak, bai jarduerak eta prozesuak, bai zuzentasuna kaltetzen duten portaerak edo jokabideak izan ditzaketen eremu espezifikoak.

Era berean, zuzeneko zerikusia du unean uneko arriskuak identifikatzeak esleitutako eginkizunekin eta horiek betetzearekin.

Esate baterako, Europako funtsen kudeaketan azkarragoak izan behar dira kudeaketa prozesuak, laburtu egiten dira epeak, bermeak eta izapideak, erdigunean jartzen da finantza kudeaketa, esleipenetan dirulaguntzen bitartez bideratzen da finantza baliabideen gastua, kontratazio publikoa bereziki garrantzitsua da funts horien eraginkortasuna bermatzeko, lankidetzat publiko-privatuak ateari ireki diezazkieke interes gatazkei, eta abar eta abar.

Udalaren eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeen jarduera esparruan bereziki garrantzitsuak dira departamentuari esleitutako zeharkako eskumenei lotutako arriskuak, hala nola kontratazio publikoari eta langileen kudeaketari dagozkienak, eta hein apalagoan, ekonomia eta finantza esparruari dagozkionak, Ekonomia eta Ogasun departamentuak gai horietan eta dirulaguntzen gaian dauzkan eskumenei kalterik egin gabe.

ZER ARRISKU IDENTIFIKA DAITEZKE USTELKERIA, IRUZUR, IRREGULARTASUN ETA INTERES GATAZKAK GERTATZETIK GERTUKOAK EDO ATARIKOAK?

Sektore publikoaren esparruan, hauexek dira, besteak beste, ustelkeria edo iruzur gertaera patologikoak eragin ditzaketen arrisku agerikoenak:

- Interes gatazkak

Bidegabeko erabilerak

Iruzurra berariazko engainutzat hartuta bidegabeko abantaila lortzeko

Faboritismoa

Nepotismoa

Klientelismo politikoa edo sindikala

Kolusio praktikak

ARRISKUEN EBALUAZIOA ZUZENTASUNAREN ARLOAN

Arriskuaren ebaluazioak, baita zuzentasunaren arloan ere, arriskuaren maila zehaztea dakar bi faktoreren bitartez:

- a) Arriskua (handia, ertaina, txikia) gertatzeko probabilitatea, bi elementuren inguruan neurtzen dena:

Arrisku bat gertatu den maiztasuna edo aldien kopurua.

Arriskua gertatzeko aukera gutxitzeko, arintzeko edo eragozteko neurriak izatea edo ez izatea; eta hori Plan honetan jasotako prebentziozko neurriekin eta neurri zuzentzaileekin alderatu behar da.

Gertatuz gero, arrisku horrek erakundeari eragiten dion inpaktua, arrisku jakin bat gertatzeak erakundearentzat dauzkan ondorioetan islatzen dena (izen ona galtzea, konfiantza krisia herritarren artean, alarma soziala, erakundeko klima edo atmosfera etikoa hondatzea, praktika bidegabeak ugaritu ditzaketan joerak bultzatzea, etab.).

ARRISKUEN MATRIZEA

Probabilitatearen eta eraginaren arabera, kasu bakoitzean dagoen larritasun mailaren eskala finkatzea. Era berean, arrisku horiek arintzeko edo saihesteko neurriak jaso beharko lituzke.

Probabilitatea / Larritasun maila	Txikia	Ertaina	Handia
Handia	Ertaina	Handia	Handia
Ertaina	Txikia	Ertaina	Handia
Txikia	Txikia	Txikia	Ertaina

ARRISKUAREN TRATAMENDUA

Arrisku gordina (edo berezkoa) da oraindik berau kalifikatzeko eta tratatzeko jarduerarik abiarazi ez denean sortzen dena; arrisku garbia, berriz, ebaluazioa egin eta eragina kalifikatu ondoren sortzen dena da, eta, hala badagokio, hura murrizteko edo kontrolatzeko neurri egokiak aplikatzen dira. Arrisku handiak alerta gisa erabili behar dituzte baliabide horiek erabakitzen eta kudeatzen dituztenek.

Arrisku mota bakoitzaren sailkapenak arriskuaren larritasun eta eragin mailari eman beharreko erantzun egokia dakar berekin batera.

Arriskuaren tratamendua:

- a) Ebaluazioaren ondorio bat da.

Arriskuak irregulartasun, iruzur edo ustelkeria bihurtzea saihesteko edo arintzeko neurriak zehazten ditu.

Lehenengo neurriak prebentziozkoak dira, eta horien helburua da jarduera bidegabeak edo ez zuzenak gertatzeko probabilitatea murriztea.

Era berean, badira barne kontrolerako neurriak, garrantzi handikoak, horien artean kontu hartzailetzako eginkizuna eta barneko eta kanpoko finantza

kontrola (auditoretzak), eta bereziki biderkatzen dira arriskuak gertatzeko aukera handienak dituzten arloen eta jardueren gaineko kontrol lanak.

Ohar garrantzitsua:

II A Eranskinean zehazten da arriskuen ebaluazioa egiteko prozedura: ebaluazio hori horretarako diseinatutako tresna informatikoarekin egingo da, eta lehen deskribatutako arriskuen ebaluazioan eta antolamenduaren metodologian zehazten denarekin bat etorrira, tresna hori egokitu eta bertan aldaketak egin ahal izango dira esparru jakin batzuetan Europako funtsak kudeatu behar direnean.

2.2.7.- Antolamendu Neurriak ezartzea funtsen kudeaketan.

Europako funtsen erabileran inpartzialtasuna eta objektibotasuna zaintzeko eta itxurazko edo balizko interes gatazkak saihesteko, Planak argi eta garbi bereizten ditu kudeaketa, kontrol eta ordainketa rolak: horiek kudeaketa egiturari, interbentzio eta auditoretza sistemetan eta ordainketa sisteman daude zehaztuta, hainbat organoren eta, hala badagokio, hainbat departamenturen bitartez.

Donostiako Udalari aplikatu beharreko arau esparruaren arabera, barne kudeaketa eta kontrol sistemak argi eta garbi daude bereizita, kudeaketa organo betearazleari baitagokio eta barne kontrola, bere finantza eta kontabilitate arloetan, Kontu hartzailetza Nagusiari. Era berean, ordainketa agindua bereizten da, hori Diruzaintza Nagusiaren eskumena baita.

2.3.- HAUTEMATEKO NEURRIAK

Iruzuraren aurkako zikloaren bigarren fase honetan egituratu behar dira irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko neurriak.

Iruzuraren aurkako Neurrien Plan honetako aurreko epigrafean adierazitako prebentziozko neurriek huts egiten dutenean aktibatuko da fase hau.

Hautemateko faseak galaraz dezake irregulartasuna, iruzurra, ustelkeria edo interes gatazka, edo gutxienez ondorioak arindu ditzake.

Hautemateko neurriak

2.3.1.- Dilema etikoak edo salaketak edo alerta planteatzeko barne kanalak antolatzea.

Irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta barne gatazkak hautemateko eginkizuna izango dute kanal hauek.

Jokabide kodeetan edo gobernu onaren kodeetan aurreikusten diren jokabide printzipio eta arauen irismenari buruzko dilema etikoen irismena, Plan honetan jasotako antolamendu egituraren bitartez interpretatuko eta bideratuko da, eta kasu zehatz batzuetan aplikatuko da; hau da, Zuzentasun Batzordeak bere kabuz ebatziko du planteatutako gaia.

Salaketak aurkezteko barne kanal horrek printzipio eta arau sorta bat bermatu behar du irregulartasunak, iruzurrak, ustelkeria eta interes gatazkak hautemateko tresna horren erabileran eta funtzionamenduan.

2.3.1.1.- Artikulazio printzipioak.

- a) Konfidentzialtasuna.
- b) Salatariak kalterik ez izateko bermea.
- c) Norabide biko komunikazioa bideratzea, salaketak izengabeak ez badira.
- d) Salatariaren edo alerta emailearen datu pertsonalak babestea.
- e) Salatariaren babesari dagokionez, betiere zuzeneko ondorioengatik aplikatu badaitezke eta arau bidez garatzen ez den bitartean, 2019/1037 (EB) Zuzentarauaren aurreikuspenak aplikatzea.
- f) Kasu bakoitzean aplikagarria den legediarekin bat etorrira, salaketak eraginkortasun eta prozedura berme guztiekin kudeatzea.
- g) Salaketak informaltasun printzipioaren arabera aurkeztea, soilik postontzi telematikoan eskatutako datuak betetzea eta, nolana ere, salatutako ekintzak, balizko pertsona kaltetuak eta salaketa oinarritzen den frogak edo zantzuak espresuki adierazirik.

2.3.1.2.- Salaketaren edukia

Honako hauek jasoko ditu jarduera ustez iruzurtien berri ematen duen informazioak:

1.- Ahalik eta modurik zehatzenean eta xehetasun osoz deskribatuko ditu gertaerak, eta ahal dela hauexek identifikatuko ditu: haietan parte hartutako pertsonak; ustezko irregulartasunak edo iruzurrak kaltetutako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak; gertaerak jazo diren benetako data edo gutxi gorabeherakoa; laguntzak kudeatu dituen organoa edo erakundea; eta, hala badagokio, informazio hori jaso duten organoak edo erakundeak.

2.- Jakinarazitako gertaerak egiaztatzea ahalbidetuko duten dokumentuak edo beste edozein frogak, eta gertaera horiekin lotuta bideratutako jarduerak.

3.- Informazioa luzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari bidali dion pertsonaren identifikazioa (IFZ zenbakia, izen-abizenak eta posta elektronikoen helbidea edo, bestela, posta helbidea).

2.3.1.3.- Funtzionamendua

1.- Kanal espezifikoa izango da, eta haren bidez, salatariaren identifikazio elektronikoaren bitartez, ordezkatuak izateko arriskua edo salaketa automatizatuak saihesteko, Udalaren esparruan edo beste edozein esparrutan erakundearen zuzentasunaren aurkako jokabideen edo jardueren salaketa modu elektronikoan egitea ahalbidetuko da, eta beti bermatuko da salatariaren anonimata eta konfidentzialtasuna, salaketa ikertzeko ardura duten organoek ez dezaten salatariaren identitatea ezagutu, errepresaliak saihesteko.

2.- Era berean, kanal hori enplegatu publikoek erabili ahal izango dute iruzurraren aurkako prozeduretan edo ekintzetan hobetzeko neurriak proposatu ditzaten.

3.- Gainera, dirulaguntzen onuradunek edo enpresa hartzaileek egindako intzidentziak salatu ahal izango dira.

4.- Fede oneko salatariaren babesa bermatzeko neurri espezifikoak ezarriko dira, ikerketa aldian eta gero ere ez dezan isolamendurik, jazarpenik edo lan edo lanbide baldintzak okertzerik jasan, ezta edozein kalte edo diskriminazio ekar dezakeen neuririk bat ere.

5.- Konfirmatu den edo potentzialki egiazkoa den iruzur kasu baten aurrean, salaketen kanalaren arduradun den organoko presidenteak isilpeko informazio prozedura bat tramitatuko du. Prozedura honen baitan kasuaren azterketa sakon bat egingo da, eta bertan dokumentatu beharko dira jarduera, frogak eta hartu beharreko ebazpen guztiak, Plan honen 2.5.2 puntuan ageri den moduan jokatu.

6.- Datuen Babeserako Organo Delegatuak kudeatuko du salaketak aurkezteko kanala.

a) Salaketak jasotzea.

Arduradun Teknikoak aztertuko ditu aurkeztutako salaketak. Urrats hauek egingo dira:

- Aztertu egingo dira jasotako salaketak, eta horretarako informazioa eskatu ahal izango zaie bai aurkeztutako salaketak aipatzen dituen administrazio organoei edo erakundeei, bai salaketak ukitu ditzakeen zeharkako organoei.

- Salaketa ez da izapidetuko argi eta garbi funtsik gabea baldin bada edo helarazitako informazio eskasak, gertaeren deskribapen orokorregiak edo zehaztu gabek edo emandako frogak elementuek ez baldin badiote organo izapidegileari jasotako informazioa zentzuz egiaztatzeko eta jakinarazitako gertaerei zer tratamendu eman behar zaion erabakitzeko aukerarik ematen. Eta ez da argi eta garbi fede txarrez egindako salaketak edo informazio faltsua edo legez kanpo lortutako informazioa jasotzen duen salaketarik izapidetuko. Kasu horietan guztietan artxibatu egingo da aurkeztutako salaketa, betiere artxibatuzeko arrazoiak azalduz.

b) Salaketen tratamendua

Aztertutako gertaeren eta araudi aplikagarriaren arabera:

1. Salaketa eta burura eramandako ikerketaren emaitzak Zuzentasun Batzordeari igorriko zaizkio kasua ezagutu dezan, eta dagokion prozedura (diziplina prozedurak, egiaztatutako irregulartasun baten salaketa izan duen prozeduraren bat itzultzeko edo baliogabetzeko prozedurak barne) eta, hala behar badu, dagokion Planaren eguneratzea izapidetu ditzan.

Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari, OLAFri eta, hala badagokio, Fiskaltzari eta Justizia Auzitegiei helaraziko zaie salaketa.

Hala badagokio, aurkeztutako salaketa artxibatzeke agindua emango da, betiere artxibatzeke arrazoiak azalduz.

Salaketa kudeatzean, une oro bermatuko da salatariaren datu pertsonalen konfidentzialtasuna, baita salaketa izenik gabe tratatzea ere, salatariari kalterik egingo ez zaiola bermatzeko.

Jasotako eta izapidetutako salaketei buruzko urteko txostena landuko da.

2.3.1.4.- Salaketak egiteko Udaleko barne kanala

Salaketak egiteko Kanal propio bat antolatuko da balizko iruzur baten edo haren susmo oinarridunaren eta ustezko irregulartasunaren inguruko balizko salaketei erantzuteko. Horretarako posta elektronikoko helbide hau gaitu da: salaketakanala@donostia.eus

Aurreko lerroaldean adierazitako salaketetarako barne kanal hori baliatzeaz gain, alerta emaileak edo salatariak zuzenean jo ahal izango du salaketak egiteko dauden kanpo kanaletara edo beste erakunde mota batzuetara (Kontuen Auzitegia, Fiskaltza, etab.). Hauexek dira salaketak aurkezteko kanpo kanalak:

2.3.1.5.- Salaketak aurkezteko kanpo kanalak

Nolanahi ere, era berean kanpo kanal hauen bitartez bideratu daitezke salaketak:

Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), SEM-MRRtik etorritako Europako funtsen arloko IGAE Kontrol Agintaritzari atxikia: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/paginas/denan.aspx>

OLAF, Iruzuraren aurkako Agentzia europarra: https://fns.olaf.europa.eu/main_es.htm

2.3.2.- Bandera gorrien zerrenda bat aurreikustea

Alerta sistema baten gisara jardungo du bandera gorrien zerrendak irregulartasun administratiboak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak gertatzeko arriskua handia edo ertaina den kasuetan edo inguruabarretan.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua aurreikusten du Iruzuraren aurkako Neurrien Planak besteak beste honako betebeharrak izango duela: *“Alerta seinaleei doitutako detekzio neurriak daudela aurreikusiko da, eta horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztuko da”*. Tresna hori, beraz, mekanismo egokia da irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko eta hautemateko.

Bandera gorri horiek identifikatzeko eta haien irismena zehazteko, OLAFk bere garaian landu zituen dokumentuak erabiliko dira, Plan honetako III. Eranskinean jasotako Bandera Gorrien Katalogoa erakusgarri. Katalogo hori aldizka berrikusiko da, hartan aldaketak egiteko edo beste kasu batzuk aintzat hartzeko premia dagoela sumatu ahala.

Gainera, III. Eranskinean azalduko da bandera gorriak hautematean bideratuko beharreko prozedura.

2.3.3.- Jardueri eta, hala badagokio, interesei, ondasunei edo ondareei buruzko adierazpenak.

Dagoeneko azpimarratu egin da jardueri buruzko adierazpenek duten garrantzia, irregulartasunak, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko mekanismo gisa; disuasioaz gain, haren eraginkortasunik garrantzitsua da jardura iruzurtiak, irregulartasunak, ustelkeria ekintzak edo interes gatazkak zein kasutan eta inguruabarretan gerta daitezkeen identifikatzea edo hautematea. Beraz, inolako zalantzarik gabe oso garrantzitsua da adierazpen horiek aztertzea irregulartasunak hautemateko atalean.

HFP 1031/2021 Aginduaren 6.4 artikulua dio organo kudeatzaileek, iruzur arriskuari buruzko ebaluazioarekin batean, nahitaez egin behar duela Interes Gatazka Ezari buruzko Adierazpena (DACI), eta interes gatazka horiei heltzeko prozedura bat onartu behar duela.

6.5 artikulua i) letrak, bere aldetik, berriz ere azpimarratzen du DACI hori onartzeko premia, planaren gutxieneko betebeharren artean honako hau ere jasotzea aurreikusten baitu: *“Espezifikoki, interes gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitzea EBren Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua 1. eta 2. atalean ezarritakoari jarraiki. Bereziki, nahitaezkoa izango da PRTR plana egikaritzeko prozeduretan parte hartzen dutenek DACI bat sinatzea, hierarkian gorago dagoenari ustezko interes gatazka dagoela jakinaraztea eta hark kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzea.”*

Ministerio Aginduan DACI interes gatazkak prebenitzeko tresna gisa jasotzen bada ere, eta zalantzarik gabe hala bada ere, ezin da baztertu Adierazpen hori lotuta egotea dagokion adierazpenean hartutako betebeharrak saihesten dituzten jarduerak,

jokabideak edo portaerak eta ez egiteak hautematearekin, zuzentzearekin eta jazartzearekin. II B 5 Eranskinean aurreikusitako autoebaluaziorako testak gai hori jasotzen du prebentziozko neurrietan (“Esku hartzen duten guztiek egiten al dute interes gatazkarik ez dagoela azaltzen duen adierazpena?”; baina, azaldu bezala, DACIren disuasiozko ondorioak nahikoak ez diren kasuetan planteatzen den hautemateko fasean gauzatzen dira ondorioak. Horrexegatik, HFP 1030/2021 Aginduan ezarritakoa baino zorrotzagoa den DACI eredia jaso da Plan honetan, Planaren beraren edukian eta dagozkion Eranskinetan ezarritakoarekin bat etorrira.

2.3.4.- Datuak eta trazabilitatea kudeatzeko tresnak sartzea.

HFP 1030/2021 Aginduaren 6.5 artikulua ezartzen dituen betebeharren artean dago Planean beharrezkoak diren hautemateko neurri guztiak sartzea alerta sistemak behar bezala funtzionatu dezan. Horrekin batera, III C Eranskinak ezartzen du arlo horretan garrantzitsua dela “Datuaren analisia” deitutakoa. Hautemateko esparruan, gisa honetan antolatzen dira:

- Betiere datu pertsonalen babesaren (gaur egun DBEOK indartua) errespetuak berekin dakartzan mugen barruan, ustelkeria eta berezko iruzurra hautemateko tresna garrantzitsua da “arloko beste erakunde publiko eta pribatuekin datuak gurutzatzea” Europako funtsak eman aurretik ere arrisku handiko balizko egoerak hauteman ahal izateko.
- Ildo horretan, tresna batzuk dira, esate baterako, Dirulaguntzei buruzko Datu Basea (BNDS), erakunde publikoetako kontratazio plataformak, kontratisten erregistroa, Merkataritza Erregistroa, datuak aztertzeko tresnak (“data mining”), REVASCON (Kontratuen Euskal Erregistroa), Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforma, datuak aztertzeko tresnak eta Europako Batzordearen arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE, DAYSI), 2014-2019 Urte Askotako Finantza Esparrutik etorritakoak, etab.

2.4.- ZUZENTZEKO NEURRIAK

2.4.1.- Sarrera

Iruzuraren aurkako zikloaren hirugarren fasea irregulartasunen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes gatazken zuzenketa zehazten da.

Izan ere, irregulartasun, iruzur edo ustelkeria susmorik edo ebidentziarik baldin badago, Udalak eta bere sektore publiko instituzionaleko erakundeek, beren organo eskudunen bitartez, neurri sorta bat aplikatu behar du, horien artean, baztertu egingo ditu proiektuak, aurretiazko jarduerak abiaraziko ditu, edo zuzenketa neurri osagarriak aplikatuko ditu gertatutakoak agintari eskudunei jakinarazteko.

Beraz, kasu batzuetan bat egin dezaketen trazadura sekuentziala dute zuzenketa eta jazarpen faseek; baina zuzenketa helburua da kalte handiagoak saihestea edo arintzea eta, horrenbestez, Europar Batasunaren finantza interesak zaintzea, hots,

jokabide horien ondorioz erakundearen irudia eta izen ona kalteturik gertatzeko aukera murriztea.

6.5 artikulua f) letrak ezartzen du Neurrien Planak besteak beste *“iruzur kasu susmagarri bat hautematen denean dagozkion zuzenketa neurriak definitu behar dituela, iruzur susmoen berri emateko mekanismo argiak ezarririk”*.

2.4.2.- Jarduerak ustezko iruzur bat hautematen denean

Arduradun Teknikoak lehen deskribatutako salaketak aurkezteko kanal propioaren bitartez, edo beste edozein bitartekoren bidez, aurkeztutako iruzur susmo baten berri duenean, gaian eskumena duen zerbitzuari eskatuko dio bildu ditzala eskura duen beharrezko informazio eta froga guztiak, kasuari buruzko ondorengo azterketa bideratu ahal izateko.

“Bandera gorriak” deituriko adierazle batzuen agerpena izango da iruzurra baden ala ez den erabakitzeko irizpide nagusietako bat.

Ustezko iruzurra hautemateak edo haren susmo oinarriak berekin ekarriko du Arduradun Teknikoak hura hauteman den prozedura zehatza bertan behera uzteko baloratzea, eta ahalik eta azkarren jakinaraziko zaio Zuzentasun Batzordeari, honako neurri hauek har ditzan:

- Dena delako zirkunstantziaren berri emango zaie, ahalik eta lasterren, agintaritza interesdunei eta jarduerak egitean inplikaturako erakundeei, jazarpen neurrietan garatuko den moduan.

Iruzurraren eraginaren ebaluazioa egingo du eta hura sistemikotzat edo puntualtzat joko du, hurrengo atalean zehazten den moduan.

Haren eraginpean bideratu ahal izan diren proiektu guztiak berrikusiko ditu.

Hala badagokio, hautemandako intzidentzia identifikatu den espediente guztietatik finantzazio komunitarioa kentzeko eskatuko du.

Unitate betearazleei emango die hautemandako ahulgunea konpontzeko ezinbestean hartu beharreko neurrien berri, gertatutako intzidentziak errepikatu ez daitezten.

2.4.3.- Iruzur, ustelkeria eta interes gatazkak sistemikoak ala puntualak diren jakiteko ebaluazioa

Ustezko iruzurra hautemanda, Udalak edo bere sektore publiko instituzionaleko erakundeek hautemandako irregulartasun, iruzur, ustelkeria edo interes gatazka horiek puntualak diren ala inguruabar sistemiko bihurtu diren (horrek erakundearen izen onari eragin diezazkiokeen ondorioekin) identifikatu behar da.

Arduradun Teknikoak egingo du ebaluazio hori, eta sistemikotzat joko du kudeatutako finantza baliabideen edo erakundea onuradun den baliabideen berezko iruzurrak erakundeak berak kudeatutako edo egikaritutako proiektu, azpiproiektu edo jarduera horren guztizkoaren % 33an baino portzentaje handiagoan eragiten duenean.

Bestela, iruzur sistemikotzat joko da berezko iruzurra behin eta berriz eta antzeko prozesuetan egin dela salatzen duten probak aurkitzen direnean, eta iruzur puntualtzat joko da gertaera isolatua izan dela egiaztatzen denean, ez dela beste inoiz gertatu egiaztatzen denean.

Arduradun Teknikoak ondorioztatzen badu iruzurra sistematikoa dela, badaezpada eten egingo du edo ditu proiektua edo proiektuak, eta berehala emango dio horren berri Zuzentasun Batzordeari, egoki irizten dituen neurriak proposatu ditzan.

2.4.4.- Proiektuak osorik edo zati batean baztertzea.

HFP/1039/2021 Aginduaren 6.5 artikuluko f), g), h) eta i) letretan ezarritakoari jarraiki, Arduradun Teknikoak Europako funtsen kudeaketan berezko iruzurra edo ustelkeria hautematen duenean edo horren susmo oinarrituak daudenean, proiektuak eta azpiproiektuak osorik edo horietako zati batzuk baztertu ahal izango ditu, inguruabar horiek aipatutako funtsen kudeaketan eragin badezakete.

2.4.6.- Beste zuzenketa neurri osagarriak hartzea:

Kontrol organoaren jardueraren bitartez prozedura administratiboak edo penalak abiarazi aurreko ikerketa eta aurretiazko jardueretan oinarrituko dira neurri hauek.

2.4.5.1.- Ustezko berezko iruzur bat hautemanen gero, edo jarduera bidegabe bat egin ahal izan delako susmoa izanez gero, Datuen Babeserako Organo Delegatuaren Lehendakariak, susmoa salaketan kanaletik datorrenean, edo Arduradun Teknikoak, susmoa bere funtzioak gauzatzetik datozenean, edozein zehapen edo diziplina prozedura abiarazi baino lehen, informazioa emateko edo aurretiazko jarduerak bideratzeko epe bat emango du kasu zehatzaren inguruabarren berri izateko eta dagokion zehapen edo diziplina prozedurak abiaraztea komeni den ala ez ebazteko. Hala bada, jarduera horiek ahalik eta zehatzen azaldu behar dituzte prozedura abiarazteko arrazoiak, pertsona edo pertsonak identifikatu behar dituzte, baita halako kasuetan gertatzen diren inguruabar garrantzitsuak ere, eta guztiaren berri emango zaio Zuzentasun Batzordeari.

2.4.5.2.- Kontuan izanik helburua dela, alde batetik, Europar Batasunaren finantza interesak babestea, eta bestetik, Europako Aurrekontutik etorritako baliabide horiek aurreikusitako helburuetara iritsi ez daitezen saihestea, Udalak bizkortasun printzipioaren arabera bideratu beharko ditu aurretiazko jarduerak, finantza baliabideak berreskuratu ahal izango direla bermatzeko, prozeduran interesdunen eskubideak babesteari kalterik egin gabe.

2.4.5.3.- Era berean, Zuzentasun Batzordeak helaraziko dio dagokion organoari, hark, EBren Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta hautemandako berezko iruzurrak edo iruzur susmoak zigor penala jaso dezaketen ustezko egintzak egitea ekar badezake, gertaera horien berri berehala helarazteko Fiskaltzari eta agintaritzari judizialari.

2.4.5.4.- Era berean, 2018ko Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluko horren beraren arabera, Udalak, berezko iruzurra hautematen duenean edo iruzur susmoak dituenen,

elkarlanean eta leiak jardungo du agintaritza eskudunekin, kanpo kontroleko organoekin, fiskaltzarekin eta agintaritza judizialekin eta, hala gertatzen denean, Europako Batzordeak, OLAFk edo Europako Kontu Publikoen Auzitegiak bideratzen dituen jarduerekin.

2.4.5.5.- Nolanahi ere, behin ustezko iruzur bat hautematean, edo haren susmo oinarrituna izatean, Udalak lehen adierazitako neurriak hartuko ditu eta, zehazki, HFP 1030/2021 Aginduaren 6.6 artikuluan jasotakoak.

2.5.- JAZARPEN NEURRIAK

2.5.1.- Sarrera

Berezko iruzurraren eta ustelkeriaren jazarpena da iruzurraren aurkako zikloaren azken fasea. Abiapuntutzat hartzen da zantzu nahikoak daudela uste izateko administrazio arloko irregulartasunak (erakundeak berak edo administrazio agintaritzek zuzendu ditzaketanak) edo, hala badagokio, penalki jazar daitezkeen egintzak egin ahal izan direla.

Aurreko faseetan ez bezala, fase horietan Udalak iruzurra prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurriak har baititzake, jazarpenaren esparruan jarduerak erakunde eskudunekin elkarlanean bideratzen dira berezko iruzur edo ustelkeria kasuak modu eraginkorrean jazarri ahal izateko, salbu eta bere langileei bideratutako diziplina edo zigor jardueri dagokienez, kasu horretan neurri horiek hartu ahal izango baitira, zuzenketa fasean ikusi denez.

Jazarpen jarduerak adierazten du ordurako kalte egin zaiola erakundeari edo haren izen onari, eta, kasu batzuetan, iruzurraren edo ustelkeriaren xede izandako funts europarrak berreskuratzeko benetako aukerak mugatuak edo konplexuak direla, baina Udalak eskura dituen baliabide guztiak jarri behar ditu Batasunaren finantza intereseei ez kaltetzeko helburu hori modu eraginkorrean babesteko.

2.5.2.- Informazio erreserbatua eta diziplina edo zehapen prozedurak abiaraztea

Ustezko edo baieztatutako berezko iruzur kasu baten aurrean, Datuen Babeserako Organo Delegatuaren Lehendakariak, edo hala dagokionean, Arduradun Teknikoak informazio erreserbatuko prozedura bat izapidetuko dute. Prozedura horrek dagokion kasuari buruzko azterketa zehatza eskatuko du, eta bertan dokumentatu beharko dira bideratu beharreko jarduera, froga eta ebazpen guztiak.

Informazio erreserbatua ez da diziplina espedientean jasoko, haren helburu bakarra baita organo eskudunari judizio elementuak ematea espedientea abiarazteko edo ez abiarazteko erabakia argudiatu dezan. Nolanahi ere, diziplina espedientearen barruan, informazio erreserbatuan zehar bildutako dokumentuak eta frogak jaso ahal izango dira.

Informazio erreserbatuko prozesua amaitu ostean, irregulartasun administratiboak edo ukitutako pertsonen ekintzaren edo ez egitearen ondorioz zuzendu ez diren interes gatazken egoerak hauteman diren kasuetan, Zuzentasun Batzordeari jakinaraziko dio informatze xede hutsez, baita hala deritzon bere ustez zein neurri legezkiokkeen ere komunikatuko dio. Kasu guztietan Udalarari eta bere sektore publikoko instituzionaleko erakundeei jakinaraziko die hauek, eskumena duen organoaren bidez, araubidez dagokion diziplina edo zigor espedientea has dezaten.

Diziplina edo zehapen prozedura hori izapidetzearen ondorioz zigorrak ezarri behar badira, erakunde erabakitzaleari jakinaraziko zaio edo, hala badagokio, erakunde betearazleari, erakunde betearazlea Udala ez bada.

Ebazpen horiek, era berean, Europako funtsen kudeaketaren arloan eskumena duten organoei helaraziko zaizkie.

2.5.3.- Gertatutakoak eta hartutako neurriak agintari eskudunei jakinaraztea

Udalak, Europako funtsen organo kudeatzailea edo soilik hartzailea edo onuraduna den kontuan hartuta, balizko iruzur egoeren aurrean jardun beharko du, gertakari horien berri emanez:

- a) Organo kudeatzailea den kasuetan, erakunde betearazleari edo, hala badagokio, erabakitzaleari.
- b) Beste erakunde edo kudeaketa organo batek kudeatutako edo erabilitako funts europarren hartzaile edo onuradun den kasuetan, erakunde horri berehala jakinarazirik.

Eta hori HFP/1030/2021 Aginduaren III C Eranskinean xedatutakoa betez; izan ere, jazarpen fasean ustezko iruzur eta ustelkeria kasuei heltzen dienean xedatzen du ahalik eta lasterren "jakinarazi behar zaizkiela gertatutakoak eta hartutako neurriak erakunde erabakitzaleari (edo jarduerak bideratzeko agindua jaso duen erakunde betearazleari, kasu horretan erakunde betearazleak jakinaraziko baitio erakunde erabakitzaleari), eta horrek Agintaritza Arduradunari emango dio gertakariaren berri, eta Agintaritza horrek egokitzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, Kontrol Agintaritzak horien jarraipena egin eta jakinaraz dezan.

2.5.4.- Ustezko iruzur kasuak nazioko edo Europar Batasuneko agintaritza publikoen eta fiskaltzaren edo auzitegien aurrean salatzea

Ustezko iruzurra modu eraginkorrean egiaztatzen bada edo iruzurra egin izanaren susmoak zantzuetatik abiatuta oinarritunak badira, kasu horretan (baita beste kasu batzuetan ere Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritako lankidetzaren betebeharrarekin bat etorrira) ekintza edo jarduera hauetakoren bat bideratu behar du Udalak:

- a) Kasua bada, Agintaritza Publiko eskudunei emango die gertakari zigorgarrien berri; hau da, Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari (SNCA)

edo, hala badagokio, Iruzuraren aurka borrokatzeko Bulego Europarrari (OLAF).

b) Informazio erreserbatu bat abiaraziko du erantzukizunak argitzeko edo, hala badagokio, diziplina espediente bat abiarazteko, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 55. artikuluari jarraiki eta zuzenketa fasean eta fase honetako 2. puntuari adierazitako baldintzetan.

c) Hala behar duenean, zuzenketa fasean adierazitakoarekin bat etorrita, Fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean salatuko ditu gertakariak.

2.5.5.- Kasuaren gaineko jarraipena eta funtsak berreskuratzea

Ustezko iruzurraren edo egiaztatutako iruzur kasuaren gaineko jarraipena egingo da, eta aurreko ataletan adierazitakoaren arabera egindako analisi, jakinarazpen eta salaketan ondorioz abian dauden ikerketen kontrolatik igaroko da.

Informatutako agintaritzaren eskudunetako baten erantzuna jasoz gero, aintzat hartuko dira hark proposatutako jarraibideak, neurriak edo gomendioak.

Gainera, hala badagokio, bidegabe erabili diren edo ustezko iruzur edo ustelkeriaren batekin lotu diren funtsak berreskuratzeke izapidetze lanak egingo dira, eta Udalak itzuli egin beharko ditu funts horiek (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua). Europako Batzordeak ere funtsak itzultzeko eska dezake Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Batasunaren finantza interesak kaltetu dituen iruzur, ustelkeria edo interes gatazken kasuan eta estatu kideak dagokion zuzenketa egin ez badu.

Kontratuen esparruan eta subsidiarioki enkarguen kasuan, Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroko 8ko 9/2017 Legearen 71.2.c), 110.c) eta 194. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

3. PUBLIZITATEA ETA ONDORIOAK ETA JARRAIPENA

3.1. Publizitatea

Iruzuraren aurkako Neurrien Plan Orokorra langile eta goi kargudun guztien artean zabalduko da, bereziki dirulaguntza edo kontratazio espedienteak izapidetzen dituzten unitateetan ari diren artean.

Era berean emango zaie haren berri unitateetan sartzeko diren langile berriei.

Berritik sartzeko diren langileei begira, harrera egiteko eskuliburuan azaldu beharreko nahitaezko edukietako bat izango da Iruzuraren aurkako Neurrien Plana.

Era berean, Donostiako Udalaren Gardentasun Atariko atal propioan eta Udalaren Internet Atarian argitaratuko da.

3.2. Ondorioak

Plan honek Udalak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzean eta Plan horren iraunaldian zehar garatzen dituen proiektu guztietan izango ditu ondorioak, proiektuak abiarazten diren egunak edozein izanik ere. Era berean, ondorioak izango ditu Udalak kudeatzen dituen edo etorkizunean kudeatuko dituen Europako beste funtsetan, betiere araudi aplikagarriarekin bateragarria bada.

3.3. Jarraipena

Arduradun Teknikoak proposatutako neurrien aplikazio eta betetze mailaren gaineko jarraipen etengabea bideratu beharko da.

Datu hauetan oinarritu daiteke jarraipena:

- Jasotako eta izapidetutako salaketen erregistroa.

Egokitzat jotzen diren beste guztiak.

Gainera, proposatutako neurrien betetze mailaren eta egokitzapenaren arabera ebaluatuko da plan hau, eta, horri esker, komeni diren aldaketak sartu ahal izango dira, Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharrekoak.

Tarteko eta amaierako izaerarekin egingo da jarraipena; horretarako, dagozkion jarraipen eta emaitza adierazleak definituko dira, espero diren emaitzak lortu diren aztertzeko.

Era berean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 c) artikuluekin bat etorrira, bi urtean behin berrikusiko da iruzur arriskuari buruzko ebaluazioa, eta betiere, prozeduretan edo langileen artean berezko iruzur kasuren bat hautematen denean edo aldaketa garrantzitsuak egiten direnean.

Jarraipen jarduera horiek Arduradun Teknikoak bideratuko ditu, eta besteak beste alderdi hauek izango ditu kontuan:

- Berezko iruzurraren xede izateko arrisku handiena duten neurriak identifikatzea, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak, kontrol konplexuak, etab.
- Ustezko interes gatazkak identifikatzea.
- Aurretiazko barne auditoretza lanen emaitzak.
- Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontuen Auzitegiaren auditoretza lanen emaitzak.
- Lehendik hautemandako berezko iruzur kasuak.

